BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

4846

EBAZPENA, 2026ko azaroaren 5ekoa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, honako ebazpen honen hutsak zuzentzeko dena: 2026ko urriaren 9ko Ebazpena, zeinaren bidez izendatzen baitira kontsumitzaileen antolakundeei 2026ko ekitaldian emango zaizkien laguntzak baloratzeko batzordeko kideak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluak xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bidez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako hutsak atzeman dira Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariaren 2026ko urriaren 9ko Ebazpenean (2026ko urriaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 203. zk.). Ebazpen horren bidez, kontsumitzaileen antolakundeentzako 2026ko ekitaldiko laguntzak baloratzeko batzordeko kideak izendatu ziren. Beraz, dagokion zuzenketa egiten da ondoren.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeari buruzko ekainaren 29ko 9/2007 Legea eta Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketari buruzko uztailaren 12ko 159/2011 Dekretua aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Laburpenean eta 2026/4451 (1/1) orrialdean, idazpuruan,

hau dio:

> «EBAZPENA, 2026ko urriaren 9koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, 2026ko ekitaldian kontsumitzaileen antolakundeentzako laguntzak baloratzeko batzordeko kideak izendatzen dituena.»

Baina hau esan behar du:

> «EBAZPENA, 2026ko urriaren 9koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei ematen zaizkien laguntzen Balorazio Batzordeko kideak izendatzen dituena eta 2026ko ekitaldirako deialdia egiten duena.»

2026/4451 (1/1) orrialdean:

1.– Argitaratutako testuaren lehenengo paragrafoan,

hau dio:

> «Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariaren 2026ko martxoaren 4ko Ebazpenaren bidez (2026ko apirilaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 63. zk.), kontsumitzaileen antolakundeentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2026ko ekitaldirako deialdia onartu ziren.»

Baina hau esan behar du:

«Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariaren 2026ko abuztuaren 3ko Ebazpenaren bidez (2026ko abuztuaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 155. zk.), kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatu eta defendatzeko toki-erakundeentzako eta haiek sustatutako erakundeentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2026ko ekitaldirako deialdia onartu ziren.»

2.– Ebazpen-zatiaren lehenengo paragrafoan,

hau dio:

«2026ko ekitaldirako kontsumitzaileen erakundeetarako laguntzen Balorazio Batzordeko kide izendatzea, deialdia arautzen duten oinarrien 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek:»

Baina hau esan behar du:

«Toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta defendatzeko ematen zaizkien laguntzen Balorazio Batzordeko kide honako hauek izendatzea eta 2026ko ekitaldirako deialdia egitea, deialdiko oinarri arautzaileetako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera:»

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 5a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,
ANA MARÍA SÁNCHEZ HERRÁEZ.